# Erabiltzailearen eskuliburua

# Gaikuntzei buruzko kontsulta publikoa

**2017ko urtarrilaren 17ko bertsioa**

# AURKIBIDEA

**0 Sarrera ........ 3**

**1 Gaikuntzei buruzko kontsulta publikoa ........ 4**

**1.1 Gaikuntzei buruzko kontsultak** ........ 7

1.1.1 Zer gaikuntza aitortzen zaizkio titulazio horri? ........ 8

1.1.2 Zer titulazio behar dira honako gaikuntza hau aitor diezadaten? ........ 9

# 0 Sarrera

Dokumentu honek titulu akademikoen eta industria-gaikuntzen arteko loturari buruzko kontsultak egingo dituzten pertsonen edo enpresen gidari izatea du helburu.

# 1 Gaikuntzei buruzko kontsulta publikoa

Sailaren atarian eman eta ikus daitekeen kontsulta berriaren helburua da titulazio akademikoen eta industria-gaikuntzen arteko lotura adieraztea.

Gaikuntzei buruzko kontsulta

1. Zein gaikuntza aitortzen zaizkio honako Titulazioari?
2. Zein titulazio dira beharrezkoak honako gaikuntza aitortzeko?

1. **Zein gaikuntza aitortzen zaizkio honako Titulazioari?**
   Kontsulta honen bidez argituko zaizkizu Industriak (Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortsuna Saileko Industria Sailburuordetzak) Titulazioa akademiko bakoitzari aitortzen dizkion gaikuntzak.

2. **Zein titulazio dira beharrezkoak honako gaikuntza aitortzeko?**
   Kontsulta honen bidez, gaikuntza bat aitortua izateko beharrezkoak diren Titulazio akademiko guztiak argituko dizugu.

Oharra: Bila zabiltzan informazioa ez baduzu hemen aurkitzen hiritarren eta Administrazioaren arteko komunikazio kanala (IREKIA ataria) erabil dezakezu.

Sailaren ataritik gaikuntzen inguruko kontsultara sartzeko, honako pauso hauei jarraitu behar zaie:




«Ekonomiaren Garapen eta Azpiegiturak» aukeraren gainean sakatuz:




«Industria» aukeraren gainean sakatuz:




Industria-segurtasuna menuaren barruan «Gaikuntzei buruzko kontsulta» aukera agertuko da. Haren gainean sakatzean, eskuragarri dauden kontsulten orrialdean sartuko gara, eta horiei esker, herritarrek aukera izango dute titulazio akademiko jakin bati zer gaikuntza dagozkion (eta alderantziz) jakiteko; hau da, industria-gaikuntza jakin bat betetzeko zer titulazio behar den jakiteko.

## *1.1 Gaikuntzei buruzko kontsultak*

Kontsulta honek informazioa lortzeko bi era ematen ditu:

Gaikuntzei buruzko kontsulta

3. Zein gaikuntza aitortzen zaizkio honako Titulazioari?
4. Zein titulazio dira beharrezkoak honako gaikuntza aitortzeko?

**3. Zein gaikuntza aitortzen zaizkio honako Titulazioari?**

Kontsulta honen bidez argituko zaizkizu Industriak (Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortsuna Saileko Industria Sailburuordetzak) Titulazioa akademiko bakoitzari aitortzen dizkion gaikuntzak.

**4. Zein titulazio dira beharrezkoak honako gaikuntza aitortzeko?**

Kontsulta honen bidez, gaikuntza bat aitortua izateko beharrezkoak diren Titulazio akademiko guztiak argituko dizugu.

Oharra: Bila zabiltzan informazioa ez baduzu hemen aurkitzen hiritarren eta Administrazioaren arteko komunikazio kanala (IREKIA ataria) erabil dezakezu.

### 1.1.1 Zer gaikuntza aitortzen zaizkio titulazio horri?

Aukera horren bidez, herritarrak kontsultatu ahal izango ditu titulazio akademiko batengatik emango zaizkion industria-gaikuntzak:




Emandako iragazkiak, gutxienez, titulazio mota bat sartzera behartzen du. Gainera, titulazioa hautatutako motaren barruan jakinaraz daiteke. Informazio horretatik abiatuta, "Bilatu" botoian sakatuz, iragazkiaren baldintzak betetzen dituzten titulazioen taula bat ageriko da. Titulazioari aitortzen zaizkion gaikuntzak ager daitezen, aukera-botoia baino ez da sakatu behar, titulazioaren ezkerreko aldean dagoena:




Erakutsitako adibidearen arabera, Ingeniaritza Elektrikoko Gradua izeneko titulazioak honako industria-kategoriak gaitzen ditu: CCBT - Behe-tentsioko instalatzailea, ILAT1 - 30 Kv-ra arteko

goi-tentsioko lineen instalatzailea-mantentzailea eta ILAT2 - 30 Kv-tik gorako goi-tentsioko lineen instalatzailea-mantentzailea.

Informazio hori pdf formatuko dokumentu batean gorde daiteke:



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS

**ENERGIA BERRIZTAGARRIEN INGENIERITZAKO GRADUA**

Arestian aipaturiko tituluarekin eskura daitezkeen agiriak.

| KODEA | ESPEZIALITATEA |
|---|---|
| CCBT | BEHE-TENTSIOKO INSTALATZAILEA |
| GF1 | FLUORDUN HOZGARRIEN EDOZEIN KOPURUKO HOZKAILU-SISTEMEN MANEIATZAILEA |
| IA | ITURGINTZAKO INSTALATZAILEA |
| IF1 | HOZTEKO INSTALAZIOEN INSTALATZAILE-MANTENTZAILEA |
| IGA | GAS INSTALATZAILEA, IG-A KATEGORIA |
| IGB | GAS INSTALATZAILEA, IG-B KATEGORIA |
| ILAT1 | GOI-TENTSIOKO INSTALATZAILE-MANTENTZAILEA (<30 KV) |
| ILAT2 | GOI-TENTSIOKO INSTALATZAILE-MANTENTZAILEA (>30kV) |
| IMT | INSTALAZIO TERMIKOEN INSTALATZAILEA-MANTENTZAILEA |

**Arabako Lurralde Ordezkaritza**
c/ Samaniego, 2
01008 VITORIA-GASTEIZ
945 0017770 - Fax 94 4031445

**Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza**
c/ General Concha, 23
48010 BILBAO
94 4031400 - Fax 94 4031445

**Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza**
c/ Easo, 10
20006 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
943 022500 - Fax 943 022542

2017-01-30 Orria - 1

## 1.1.2 Zer titulazio behar dira honako gaikuntza hau aitor diezadaten?

Aukera honen bidez, herritarrak kontsultatu ahal izango du zer titulazio behar duen industria-gaikuntza jakin bat betetzeko.

Gaikuntzen zerrenda ager dadin, ez da beharrezkoa hasieran iragazki-eremuen baldintzak ezartzea:




Nolanahi ere, informazioa mugatu daiteke baldin eta herritarrak ezagutzen badu, adibidez, bilatu nahi duen gaikuntzari dagokion atala:



Gaikuntzaren aukera-botoia sakatuz, gaikuntza hori lortzeko behar diren titulazioen zerrenda jasotzen duen taula agertuko da eskuineko aldean.
Erakutsitako adibidearen arabera, ICL - I. kategoriako petrolio-produktu likidoen instalatzailea gaikuntza betetzeko, nahikoa da arkitekto tekniko edo arkitekto edo LH - beroa sortzen duten instalazioetako teknikari + LH - hozkailu- eta klimatizazio-instalazioetako teknikari (14/2012 D) edo (1493/2010) edo LH - beroa sortzen duten instalazioen teknikari (15/2012 D) titulazioak izatearekin.
Aurreko kontsultan bezala, informazio hori pdf formatuko dokumentu batean gorde daiteke:


Página: 1 de 1 Tamaño automático

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS

**ICL1 - PETROLIOTIK ERATORRITAKO ERREGAI LIK.-EN INSTALATZAILEA, I. KATEGORIA**

Arestian aipaturiko gaikuntza aitortzeko behar diren tituluak.

| TITULUAK |
|---|
| Arkitekto |
| Arkitekto teknikoa |
| Beroa sortzeko instalazioetan teknikaria (D 15/2012) |
| Beroa sortzeko instalazioetan teknikaria (D 15/2012) + Hozteko eta girotzeko instalazioetan teknikaria (D14/2012) o (1493/2010). |

**Arabako Lurralde Ordezkaritza**
c/ Samaniego, 2
01008 VITORIA-GASTEIZ
945 0017770 - Fax 94 4031445

**Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza**
c/ General Concha, 23
48010 BILBAO
94 4031400 - Fax 94 4031445

**Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza**
c/ Easo, 10
20006 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
943 022500 - Fax 943 022542

2017-01-30 Orria - 1